



## Hilabete barru abiatuko da Euskaraldia

Lasarte-Orian abian jarri zuten egitasmoa Euskal Herria osora zabalduko dute, azaroaren 23an hasita / 2-5

# Edukiontzi grisaren erabiltzaileak

Errefusarako edukiontzi grisa erabiltzen duten bizilagunen artean iritzi bilketa, Andoaingo Alejandro Calonge, Olagain eta Sorabilla auzoetan / 8-9

## Bizikidetza eta Memoria jardunaldiak

Urnieta | Urria-Azaroa

|                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>30</b></p> <p>Urria<br/>Asteartea</p> <p><b>S(u/a)minetik bakera</b><br/>Ikus-entzunezko proposamen esparrak</p> <p>Oraun: 19:00<br/>Lekua: Leizor Kultur etxea<br/>Hizkuntza: Euskara eta gaitortasuna</p> | <p><b>06</b></p> <p>Azaroa<br/>Asteartea</p> <p><b>Bizimiñak</b><br/>Antzerkia • Artea • Musikak</p> <p>Oraun: 19:00<br/>Lekua: Leizor Kultur etxea<br/>Hizkuntza: Euskara</p> | <p><b>13</b></p> <p>Azaroa<br/>Asteartea</p> <p><b>Nola landu biktimen aitortza tokian-tokian</b><br/>(Hitzaldia)</p> <p>Oraun: 19:00<br/>Lekua: Leizor Kultur etxea<br/>Hizkuntza: Gaitortasuna</p> | <p><b>20</b></p> <p>Azaroa<br/>Asteartea</p> <p><b>Eta herritarrok zer? Bizikidetza gure esku ere badago</b><br/>(Word cafe)</p> <p>Oraun: 19:00<br/>Lekua: Leizor Kultur etxea<br/>Hizkuntza: Euskara eta gaitortasuna</p> |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|



**Andoni Urbistondo** URNIETA

Lasarte-Orian arrakasta handia izan zuen 'Ahobizi' eta 'Belarriprest' formularen sortzaileetakoa da. Erabilera, hizkuntza ohiturak... ulermenaren logika indartuz etorriko direla dio. Baita Euskaraldia oso garrantzitsua izango dela ere, baina garbi utziz: "ondoren ere lanari jarraipena eman beharko zaio".

**Nola sortzen da Ahobizi eta Belarriprest ekimen hura? Nolatan jotzen dute zugana Lasarte-Oriako Euskara zerbitzutik?**

Lau urtez behin 'Euskararen Maratoia' egiten da Lasarte-Orian. Maratoiak beti izan du erronka kutsu nabarmena. Urtetan erronka nagusia izan da 48 orduz jarraian euskara etengabe entzutea. Lortzen da, eta lortzen den heinean, erronka desagertzen da, errutina bilakatzen da. Zer behar da? Beste erronka bat sortzea. Jauzi kualitatiboa behar zen hizkuntzaren erabileran.

**Errutina hori aipatzen duzula, egon izan da halako konformismoa euskararen aldeko ekimenekin? Alegia, bat edo beste egin, eta halako autokonplazentzia sortzea?**

Euskal Herrian ekintza asko egiten dira, gehienek jarrera alorrean dute eragina, gogoan, komunitate sentitzeko nahi horretan eragiten dute. Euskalgintzako hausnarketa errekurrentea honakoa da: erabilera datuek geldirik gaudela adierazten dute, ez dugula aurrera egiten, zerbait egin behar dela... Kezka handia dago horren inguruan, eta maratoia, Korrika eta antzeko ekimenak onak badira ere, beste zerbait gehiago behar da, horiekin erabilerak ez duelako gora egiten. Klabe gehiago ukitu behar dira. Jarrera ez da nahikoa. Lasarte-Orian ere antzera hausnartu genuen.

**Nolakoa izan zen hausnarketa hori?**

Ez nintzen hausnarketa prozesu horretan egon, baina esaten ari naizen ondorioak atera zituzten: erronkaren izpirituari berriz heldu beharra, jarreraren logikatik erabileraren logikara jauzi egitea... orduan niregana jo zuten. Ni, artean, Soziolinguistika Klusterrean ari nintzen, Aldahitz proiektuan, zuzendari gisa, lan munduan euskararen erabilera sustatzeko metodologia batzuk prestatzen. 2010ean hasi ginen proiektua garatzen. Urteotan prestatu ditugun metodologiak bat Eusle metodologia izan da. Metodologia honek era-



Pello Jauregi EHUKo unibertsitatean duen bulegoan. A.U.

# 'Ahobizi' eta 'Belarriprest', Lasarte-Oriatik Euskal Herrira

**PELLO JAUREGI** HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO IRAKASLEA EHUKo Magisteritza fakultatean irakasle da Jauregi (Pasaia, 59 urte): "Euskaraldiak herriaren indarra eta erakundeen babesa, prestigioa uztartuko ditu; funtsezkoa da hori"

kutsi du, euskararen erabilera handitu eta mantendu egin daitekeela. Beraz, bagenuen tresna bat, euskararen erabilera astintzeko eta mantentzeko, eta ondo dokumentatua, gainera. Deitu ninduten Lasarte-Oriako euskara zerbitzutik, ea Eusle metodologia herri mailan aplikatu zitekeen, lanaz besteko kontestu batean.

**Nola hartu zenuen proposamena?**

Ongi. Harreman luzea eta sakona daukat Iñaki Arruti Lasarte-Oriako euskara zerbitzuko arduradunarekin, ikerketa dezentegintza egin ditut bertan, bi liburu idatzi...

**Zer hartu zenuten Eusle metodologiak?**

Erabilera hitzak kolektiboa terminoa darama lotuta ezinbestean. Eta kolektibo bateko gutxieneko kopurua beti da bi. Nik zerbait egin behar dut, baina zuk ere bai: elkarrikerak sortzeko 'gu' behar da. Hizkuntza ohiturak, jokaerak, biren arteko zerbait dira. Abiapuntu hori jarrita, herri batean gutxieneko unitatea euskaraz dakien Ahobizi bat da, eta gutxienez, ulertzen duen beste pertsona bat: Belarriprest. Bi figura osatu genituen, kolektibotasun hori emateko. Hori zen euskaraz hitz egin ahal izateko gutxieneko egoera. Nik, euskaraz jakinda, hitz egin ahal izateko, besteak ulertu egin behar du. Ulertzen ez badu, alferrik, jai dago. Solaskideak ulertzeaz gain euskaraz egiten badu, are erosoago niretzat, baina ez da beharrezkoa berak euskaraz hitz egitea, nik euskaraz hitz egiteko. Euskal Herrian badago jende asko, agian, hitz egiteko gaitasunik ez duena, baina ulertu, ulertzen duena. Ahobizi eta Belarriprest figurekin ilustratu nahi genuen zein den euskarazko komunikaziorako gutxieneko egoera.

**Nola jakinarazi kolektibo horretako bi kideei, euskara erabil zezaketela euren artean?**

Ahobizi eta Belarriprest txapa bana erakutsiz lortzen da hori. Alegia, ulertzen duenak (Belarriprest), hitz egin nahi duenari (Ahobizi), ulertzen duela, edo uler diezaiokela erakustea, jarrera ona duela erakutsiz. Baldintza egokiak daudela ikusiz gero, euskaldun gehien-gehienak euskaraz hasten dira hitz egiten. **Beldurra dugu, euskaldunok, elkarrikeraketa bat euskaraz abiatzeko. Zergatik?**

## "IKARAGARRIA IZAN ZEN AHOBIZI EDO BELARRIPREST TXAPAREKIN JENDE UGARI IKUSTEA"

Edukazio txarrekoa dela pentsatzen dugulako, adibidez. Zenbatetan gertatzen da, bat euskaraz hitz egiten hastea, eta besteak euskara ulertzea bai, baina hitz egiteko gaitasunik ez edukitzea: A ereduari ikasi duelako, edo aspaldi ez duelako hitz egiten... mila kasu. Orduan, automatikoki, gaztelaniara jotzen dugu, ustez egoera behartzen ari gare-lako, besteak gaizki hartuko duelako eta beste... Aldiz, ulertzen duenak hitz egin duenari jakinarazten badio, gai dela, horma psikologiko hori lasaitu egiten da, bigundu, eta konfiantza sortzen da, jada ez dugulako egoera behartu izanaren sentsazioa.

### Nola sortu zenituzten bi figura horiek, bi izen kurioso horiek?

Eusle metodologian bagenituen bi termino: bata eusle, euskarari eusten diona. Eta bestea uzle, aurrekoari hala jokatzeko uzten diona. Ikusi genuen kalerako ez zirela hitz errazak, fonetikoki-eta nahasketa ekar zezaketena. Buelta batzuk eman eta Ahobizi eta Belarriprest kontzeptuak ateratu ziren. Belarriprest belarri-motz-ekin lotu nuen. Belarriprest kontzeptua etorri zitzaigun lehen-dabizi. Belarriprest kontzeptu historiko gutxiesgarria gogoan harturik, ulermen eza eta euskarazko komunikaziorako blokeoarena zetorkigun gogora, eta guk kontrako mezua zabaldu nahi genuen: positiboa, euskararen ulermenaren sozialki egin ditugun aurrerapen handiei balioa emango ziona. Uste baino jende gehiagok du egun belarria euskaraz ulertzeko prest. Hortik, beraz, Belarriprest. Gero, belarritik ahoa etorri zen. Eta aho horrek "bizia" izan behar zuen, hizkuntzaren "bizitza" erabilera bera baita. Hortik, Ahobizi.

**Lasarte-Oriako esperimentazioaren osteko datuak ikaragarriak izan ziren. Ekimenaren parte hartu zutenen erabilera %21,6 hazi zen, eta hiru hilabete geroago, erabilera hori puntu pare bat bakarrik murriztu.**

Bai, datuak oso onak dira. Nola, adierazten dute baditugula tresnak euskararen erabileran aurrerapausoak emateko.

## "ETA GERO, HARRIDURA: BAINA HORREK BA AL DAKI EUSKARAZ, EZ NEKIEN BA!"



Partaidetza datuak ere oso handiak dira. Ekimenaren Lasarte-Oriako biztanleen %12k parte hartu zuen. Kopuru handia da, bi mila lagunetik gora. 1.000 Belarriprest, eta 1.000 Ahobizi. Erronkak sei aste iraun zuen. Ahobiziek txandaka astebetez eusten zioten beren zereginari, eta gainerako bost asteetan Belarriprest gisa aritzen ziren. Belarriprestak sei asteetan aritu ziren beren zeregin hutsean.

### Zer da garrantzitsuagoa? %20ko hazkunde, edo hiru hilabete geroago, datuak gutxi murriztu izana?

Biak dira garrantzitsuak, baina agian zailena da une batean astindutakoa gero denboran zehar mantentzea. Erronka gauzatzen ari zen bitartean, jada sumatzen ziren aldaketak jendearen jokar-eran. Oso nabarmena izan zen herrian zabaldu zen talde sentsazioa. Txaparena deskubrimendu polita izan zen, txaparen bidez jendeak bere konpromiso sozialaren berri ematen zuen bestean aurrean. Bisualki kalean hainbeste jende txaparekin ikustea ikaragarria izan zen. Eta gero, harridura: "baina horrek ba al daki euskaraz, ez nekien ba!". Halako poza ikusten zen, kolek-

## "HALAKO POZA IKUSTEN ZEN, KOLEKTIBOKI ZABALTZEN ARI ZELA SUMATZEN GENUEN"

tiboki gauzak zabaltzen ari zirela sumatzen genuen. Horregatik ez gintuen gehiegi harritu datuek erabileraren aurrerapena erakustea. Baina ustekabea, eta oso polita, gainera, emaitzak mantentzen zirela jabetzea izan zen. Ekimenak halako astindua eragin zuen, baina astindu hori luzatu egin da denboran.

### Zergatik?

Garrantzia eman genielako jendearen gertuko harremanei: familian, koadrilan, lanean... Harreman horiek finko samarrak dira. Diseinuak horietan aldaketak eragiteko indarra badu, seguru asko aldaketa horiek mantentzeko aukera handia izaten dute. Bestalde, aldaketa fin-koena eman da bi kideek euskaraz egiteko erraztasuna zutenean. Horien kasuan, esperientzia aitzakia eraginkorra izan zen hizkuntza ohiturak astintzeko. Konturatu gara, aldaketa horietaz. Garaiz al gaude?

Nire ustez ulermenak da gakoa. Lehen dena zen 'hitz egin behar duzu, nik hitz egiteko'. Orain honakoa planteatzen ari gara: 'ulertu behar duzu, nik hitz egiteko'. Eta horrek ate asko irekitzen ditu. Ulermenean oinarri-

## "EUSKARALDIAN INSTITUZIOAK ETA HERRIGINTZA ESKU HARTUTA JOATEA FUNTSEZKOA DA"

tutako ildo honek denbora beharko du jendartearen barne-ratu dadin. 'Nik euskaraz egin, nahiz eta zuk erdaraz erantzun', egoera hori onartzea ez da berehalakoan gertatuko. Ez da klabe bakarra euskararen erabilera sustatzeko. Garrantzitsua bai, baina ez bakarra. Tresna hau finkatzea eta zabaltzea kosta egingo da, pedagogia sozial handia egin beharko da.

### Inflexio puntua izan al da Lasarte-Oriako ekimena?

Geroak esango du hori. Ekarpen interesgarria da, gure ustez, baina ez da edabe magikoa, dena soluzionatuko duena. Esaterako, praktika soziolinguistikoko berria babestu eta lagunduko duen ingurune sozial, politikoa, administrazio eta instituzionala egin behar dugu. Demagun, guk lantegi batean eusle metodologia erabiltzen dugula, eta hizkuntza ohiturak aldatzen direla. Bi hilabete pasa, eta enpresak euskaraz ez dakiten bi langile kontratatzen ditu. Zer egin behar dugu, berriro hasi? Gure metodologiak ez du ezabatzen hizkuntza politikan pauso gehiago, edo neurri sozial gehiago hartu behar izatea. Praktika soziolinguistikoko berria zaintzeko neurri instituzionalak behar dira.

### Zer hausnarketa eragiten dizu Euskaraldiak?

Oso inportantea izango da. Instituzioak eta herrigintza esku hartuta joatea funtsezkoa da, gure indarra txikia delako eta batuta egin behar delako bidea. Kalkulu energetiko sinplea da. Orain arte ekimenak herriz herri egin dira. Ez dago gaizki, baina horrek sakabanaketa eragiten du. Indarrak batu behar dira eta denontzako aterpe komun bat eraiki. Egun, asko mugitzen gara batetik bestera. Orduan, ni nire herrian Ahobizi banaiz, aldameneko herrira noanean ere antzeko babesa sentitu behar dut, eta lana hirugarren herrian egiten badut, han ere nire praktika soziolinguistikoa onartuta izateko giroa behar dut. Honek guztiak eskatzen digu gure txokoaren espazioa gaingitu beha-

## "LEHEN ZEN HITZ EGIN BEHAR DUZU, NIK HITZ EGITEKO. ORAIN: ULERTU BEHAR DUZU, NIK HITZ EGITEKO"

rra, Euskal Herriko espazio osoa zabaltzeko. Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den ekimena da. Ekimena telebistan ikustea, politikoa Belarriprest edo Ahobizi txapekin ikustea, horrek guztiak komunitate handiaren zentzua eraikiko du, eta babes sentsazio ikaragarria sortu.

### 10-15 urte barru zer nolako panorama aurreikusten duzu?

Aurreikusi baino, nire nahia adieraziko nizuke: Euskal Herri osoan euskararen ulermenak unibertsalak izatea. Ni ziur sentitzea, Euskal Herri osoan edozein txokotara joan, eta euskaraz egiterakoan ulertuko nautela segurtasun edukitzea. Hau da, euskaraz norekin egin eta norekin ez, horretan pentsatu beharrik ez izatea. Eremu homogeneo batean bizitzea.

### Hori ez al da utopia?

Bai, baina zailtasun politikoak daudelako, ez teknikoak. Borondatea balego, 10-15 urteko epea aski izan liteke eskolaren bidez haur guztiek euskaraz ulertzeko. Borondatea balego helduen euskalduntze masibo batek lor lezake herritar gehienek euskaraz modu oinarritzeko ulertzea, oso ordu gutxiarekin. Demagun 100 ordurekin. Nola, teknikoak hitz eginda, gauza gara herritar gehienak 10-15 urteko epean Belarriprest bihurtzeko, eta hori aurrerapauso handia litzateke. Modu horretan, euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz biziko gineteke, edozein txokotan etengabe. Hori hala balitz, Ahobizi direnek nonahi hitz egingo lukete euskaraz, normaltasunez, eta Belarriprest asko Ahobizi izatera pasako lirateke. Hizkuntza modu naturalean erreproduzitzeko mekanismoa sozialki aktibatuta egingo litzateke Euskal Herrian. Egun mekanismo hori ez dago aktibatuta, blokeatuta dago, Euskal Herriko herritar askok ez du batere harremanik euskararekin. Ez du sekula entzuten, ez da bere bizimoduan existitzen. Egoera desblokeatzeko gakoa ulermen unibertsalak da.



## NIRE USTEZ

IÑAKI ARRUTI LASARTE-ORIA UDALETXEKO EUSKARA ZERBITZUKO ARDURADUNA

## Nola sustatu Euskaraldia Udaletik



Artikulu hau idazteko proposamena jasotzen zuen e-mailak Minority language promotion, protection and regulation: the mask of piety liburua irakurtzen harrapatu nau. Liburuaren egilea Colin H. Williams galestarra da eta urteak daramatza gai hauen gainean eskolak ematen eta ikerketak egiten.

Gauza asko esaten ditu irakasleak eta ni ez naiz gai horiek hemen laburtzeko, baina han eta hemen hizkuntza minorizatuen inguruan egon dauden hainbat estrategia aztertu ondoren, argi adierazten du hizkuntza berreskuratzearen protagonista aktiboak herritarrak izatea eta erakunde publikoek, herritarrei hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatzeaz gain, jokabide eragile batez, “proactive behaviour” dio berak, lan egitea dela egon

litekeen estrategiarik emankorrena.

Ez du kea asmatu gizon horrek, baina batzuetan urrutirako betaurrekoekin begiratzea ariketa osasungarria izan ohi da, batez ere, asmatu nahi dena perspektibarekin begiratzea denean.

**Behar dugu euskaraldia?**

Ez ditu euskarak, euskararen hizkuntza komunitatea osatzen dugunok, ditugun aje guztiak konponduko, baina sortu duen ilusioak, jaso diren iritziek eta egin diren esperientziek badirudi, uste horretakoa naiz ni ere, oso ongi egokituta datorrela euskal gizarteak egun dituen ezaugarrietara eta bereziki urte luzez euskarazko gaitasuna hedatzen egin duen inbertsioa erabilerara kanalizatzen laguntzeko.

Ez da kanpaina soil bat, ez du izan nahi. Egitasmo bat da,

arnas luzekoa izan nahi duena. Urte batean, 2018an, hiztunak aktibatuz eta, hurrengoan, 2019an, era guztietako erakundeetan neurri sozialak hartuz, hiztun horiek, Ahobiziek eta Belarriprestak, euskaraz aritzeko ohitura erraztua izan dezaten erakunde horietan guztietan.

**Nahi dugu?**

Hori da galdera nagusia. Eta galdera horri, ondoren ahalik eta biztanle gehien atxiki dadin, lehendabizi, “proactive behaviour”, euskara indarberritzeko ardura duten erakundeek erantzun behar diote. Inor ez dago soberan zeregin horretan eta guztiek behar dute izan ongi etorriak eta horregatik, pozgarria da oso ikustea ez duela hasiera batere txarra izan Euskaraldiaren galderari Euskal Herri mailan erakunde publikoek zein gizarte izaerakoek eman dioten erantzunak. Sarri esan ohi den modura, ordea, udalak dira herritarregandik gertuen dauden erakundeak eta gertutasun hori baliatzea, eta gertutasun horri balioa ematea, izango da aldea marka dezakeena. Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera dagoen aldea, oraingoz 11 eguneko Euskaraldia baldin bada ere.

**Nola egingo dugu?**

Beharra sentitzen duen eta egin, egin nahi duen udal

horrek, alkate horrek, euskara batzordeko lehendakari horrek..., bide erdia egingo dauka.

Galdera horiek erantzunda, buruan darabilkien galdera “hori nola egingo dugu gure herrian?” baldin bada, erantzuna erraza du. Erantzunaren zati bat ez da oso ohikoa prozedura administratiboan, baina oso prozedura emankorra da, administrazioan ere. Alegia, egin behar da ilusioz, irudimenez, maitasunez, euskalgintza instituzionala (udala, ikastetxeak, euskaltegiak...) eta gizarte izaerakoa (euskara elkarteak, ikastetxeak, euskaltegiak...) igurtzian jarritz, goxatuz... Eta aldi berean, Udalak egin behar du, serio, konbentzimenduz, koherentziaz, eredu izanez, baliabideak jarritz....

Halatsu egin genuen guk 2016an Lasarte-Orian. Erronka bikain atera zen eta emaitzak ere halakoak izan ziren, bikainak. Pello Jauregi EHUKo irakaslearen gidaritzapean ekintza bera ikerketa-gai ere bihurtu genuen eta emaitzak Irten armairutik! Baietz 40 egun euskaraz herri erronka: ikerketaren emaitzak liburuan daude irakurgai.

Teorian behintzat, horrelako egitasmo bat, erronka bat, indartsu egiteko aurrebaldintza onenak dituen herria gurea dela inor gutxik

esango luke. Badira baldintza sozialak, politikoak, linguistikoak eta bestelakoak, gure herria baino euskaldunago, abertzaleago... eta beste “ago” batzuk, dituzten herri asko hautagai hobeak liratekeela pentsatzera bultzatzen. Baina igual garrantzitsuenak ez dira “ago” horiek. Nago ni, “ago” eta “ego” atzizkiak bakean utzi eta “egi” atzizkidun ezaugarri batzuk askatzen hasi behar dugula lehendabizi (arinegi, berekoiegi, epelegi, alderdikoegi...). Egia esanda, gurean egin ditugu ahalegin batzuk zentzu horretan.

Egia estiloa izena eman izan zaio hizkuntza-ohiturak aldatzeko herritarrak aktibatze hainbat herritan egindako esperientzia-multzo horri. Eta egia esan, ez Lasarte-Orian eta ez gainerako herri horietan ere, argi dugu ez garela “onegiak”.

Beraz, euskaldunago edo erdaldunago, herriko alkatea edo euskara batzordeko lehendakaria edo bestelako eragile baldin bazara, eta zure herriko herritarren artean hizkuntza-ohiturei astindu bat eman eta euskaraz aritzeko ohitura indartzearen gainean “Behar dugu?” eta “Nahi dugu?” galderei baiezkoarekin erantzuten badiezu, eman pausoa eta partekatu ideia inguruan dituzunekin eta asmatuko duzue ideia gauzatzeko moduarekin. Seguru.

## Bideo sorta zabala sarean



Bertso saioa Basteron



Elkarretaratze jendetsua Urnietan

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



\*Larramendi Bazkunak HPSrekin elkarlanean 2018aren hasieran landutako aldizkaritik hartutako edukia

## NIRE USTEZ

ELENA LAKA EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

### Euskal hiztun bakoitzak barruan daramagun euskaraduna



Zalantzarik ez: euskal gizarte osoa euskararen alde dago. Eman dezagun pauso bat gehiago: Euskaraldiak euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasatzea proposatzen du.

Euskaraldia Euskal Herriko herritar guztiei zabaltzen diegun deia eta proposamena da: 11 egun euskaraz. Euskaldun guztiak, modu kolektiboan. Bakoitza bere esparrutik, bakoitza bere gaitasunetik. Norbera bere sarean, norbera bere inguruan, sare eta inguru guztietara iritsi ahal izateko. Proposatzen dugu 11 egunez euskaraz jardutea etxean, lanean, kalean, eskolan, tabernan, whatsappen, webgunean, youtuben, kiroldegian, zerbitzuetan,

elkartean, batzarretan... Euskal hiztuna non, Euskaraldia han.

Hizkuntzaren bidez dauzkagu harremanak pertsonok. Hizkuntza bat erabiltzea pertsonon hautua da. Aukera hori egin, eta harreman sarea hizkuntza horretan sor daiteke. Euskara hautatzeko proposamena egiten dio Euskaraldiak euskal hiztunari. Aukeratu euskara, eta bestelako hizkuntzetan aritzeko ohitura eten, inertzia apurtu. Euskaraz harremantzeko ohitura finkatu.

Euskaraldiak herritar guztiei egiten die proposamena. Lehen aldiz, euskararen inguruko ekimen baterako Euskal Herri osoko gizarte zibilak eta erakunde

publikoak elkarrekin ekin dute, eta guztien arteko proposamen bateratua egiten diote herritar orori. Euskararen lurralde osoan, euskal eragile guztiek, zibil zein politiko. Ez esan hori ez dela berrikuntza herri honetan.

Guztiak batuta, guztiei eskainia. Zertarako? Euskal hiztun bakoitzaren barruan dagoen euskaraduna kalera dadin. Pertsona bakoitzak egin dezan aukera. Pertsona bakoitzak bakarrik? Ez, inondik ere. Ingurukoen laguntzarekin jardungo dugu. Herrietan batzordeak sortzen dihardugu, gizartean gauzak egiten ditugun moduan egingo dugu: elkarrekin, saretuta. Eta zer lortuko dugu elkarrekin euskararen aldeko hautua eginez? Lortuko dugu ohitura berri bat, eskuratuko ditugu espazio gehiago euskararentzat. Eta behin gune berri horiek irabazita, ohiturak finkatuta izango ditugu, espazioak irabaziko ditugu euskaldunontzat.

Arraroa ematen duela? Emaitzarik izango ote den zalantzak dituzula? Euskaraldia ez da udako gau

**PROPOSATZEN DUGU  
11 EGUNEZ EUSKARAZ  
JARDUTEA ETXEAN,  
LANEAN, KALEAN,  
ESKOLAN...**

batean lau zorori bururatu zaigun ametsa. Egin egin dute lehenago: Lasarten, Agurainen, Lizarran, Donostiako Egian, Arrigorriagan, Baionan... Eta erakutsi dute: posible dela; emaitzak lortzen direla; hizkuntz praktikak aldatzea gure esku dagoela; bata bestearrekin elkarrekin ekinez, posible dela hizkuntzarako gune berriak irabaztea. Irabazten da hizkuntza, gertutasuna, unibertso oso bat.

Honek guztiak ilusio kolektiboa sortzen du. Herritarrengandik sortutako ekimen bat delako. Euskaraz egiteko euskararen lurralde osoan lehen aldiz egiten den proposamen kolektibo bat delako. Pertsona, elkarte eta erakundeek, lehen aldiz, orpo orpo jardungo dugulako. Gune berriak irabaziko ditugulako. Elkarlanerako eta euskararentzako aldeko haizea dugulako.

Ilusio hori atera, erabili, haizatu, praktikan ipini eta ondo kudeatzea guztion ardura da. Euskaraldiak izan behar du 11 egunetan euskaraz hitz egiteko espazio aske bat. Eta ondoren,

**LASARTE-ORIAN,  
EGIAN, AGURAINEN,  
LIZARRAN, BAIONAN  
ERAKUTSI DUTE  
POSIBLE DELA**

bukatzean, euskaraz egiteari eusteko modu bat. Hamaika egunen ostean bukatuko baita Euskaraldia, baina ez gure mugimendua, euskaltzaleen mugimendua. Eta etorriko da hurrengo urtea, eta eskatuko dizkiegu erakunde eta entitate guztiei urratsak hizkuntz ohituretan. Eta egingo du euskal gizarteak aurrera, euskaraz, pertsona zein entitate, praktika berriak sortuz, harremanetarako ohiturak aldatuz. Orain Belarriprestak eta Ahobiziak izango dira. Gero euskal hiztunak euskal gizartean. Itsasbeherarik gabeko itsasgora da Euskaraldia.

Herritarrari eskatzen diogu Euskaraldiaren ekintza praktikoetan murgil dadila. Har dezala parte bere herriko batzordean. Utz ditzala Euskaraldiko 11 egunak bere barnean sartzen, eta erantzun diezaiola hizkuntz ohiturak berriak hartzeko deia. Batzuei hizkuntza berez etorri zitzairen, astindu dezatela. Besteek esfortzu bat eginda ikasi zuten, erabil dezatela, balia dezatela egin zuten ahalegina. Guztion ekarpena behar da, guztien ekimena izango da ongi etorria. Eta trukean, batzuk zein besteek, euskal hiztunek eta euskararen gizarte osoak izango du etekina: euskaraz aritzen den gizarte normalizatu eta kohesionatu bat.

**EUSKARALDIAN PARTE HARTU**

**izenematea.euskaraldia.eus**

Zein rol hartuko duzu Euskaraldian?

**Ahobizi**

**Belarriprest**

**Izen-ematea, URNIETA:** Kiroldegia, kultur etxea, liburutegia, Sarobe eta ikastetxeak.

**Izen-ematea, ANDOAIN:** Udaleko euskara saileko webgunea, Ataria, kiroldegia, Urrats, Li denda.



**Andoaingo eta Urnietako  
Euskaraldiaren jarraipena  
aiurri.eus webgunean**


**aiurri.eus/Gure\_Gaiak/Euskaraldia**  
**ALBISTEAK, DEIALDIK, HITZORDUAK**

**www.aiurri.eus**



## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

MARIPI ARRUIZ IPAR HAIZEA HERRITAR PLATAFORMA

## Etorkizuna eraikitzen ari omen dira...

Olanok eta Asensiok, hedabide batzuen laguntzarekin (El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa eta EITB) klima aldaketaren kontra lan egingo dutela diote. *“La valorización energética contribuye a frenar el cambio climático”* zioen Foru Aldundiko Ingurumen diputatu den Jose Ignacio Asensiok El Diario Vasco egunkarian.

Ze balorizazio? Zubietako errauskailuak energia elektrikoa sortzeagatik daukan balantze energetikoa oso eskasa da, %0,30 ingurukoa; beraz, sortzen duen energia kopurua oso txikia da eta, aldiz, sortzen den kutsadura oso handia. Horrez gain, hondakinak ondo bereizteko batere ahaleginik ez dute egiten beraien alderdiek: Donostia, Irun, Hondarribia... dira horren adibide.

Gipuzkoan jada, Goierriko enpresa bati esker, badugu pixoihal eta konpresak birziklatzeko modua. Baina, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, EAJ-PNV eta PSE-EEren botoei esker, enpresa horrek eskaintzen duen teknologia erostea ez da onartu. Zaila ulertzea ez? Are gehiago jakinik Gipuzkoako benetako errefusaren %70 pixoihaiek eta konpresek osatzen dutela. Agian beldur dira erraustegiari jaten emateko erregai gabe geratzeaz?

Zabalgardi Bilboko erraustegiak, Tecnaliari eskatutako txosten baten arabera, duela 10 urte ireki zenetik, modu kezkagarrian handitu da errauskailuaren inguruko lur, ur eta landareztan topatutako artsenikoa, manganesoa, kobrea eta dioxina kopuruak.

Hemen ere, horixe espero dezakegu Zubietako errauskailua martxan jartzen den unetik. Inguruko lur, ur, baratze eta landareak kutsatuak izatea, guzti horrek osasunean duen eragin zuzena kontutan harturik. Ez al da beldurgarria?

Zuek, ustelkeriak jotako Urbaser enpresarekin sinatutako kontratuan oso toxikoak diren 12 sustantziak ez kontrolatzea onartu duzue. Beraz, atmosferara isuriko dira inongo kontrolik gabe. Olano eta Asensio, goian aipatutako guztia irakurri ondoren, ausartuko al zarete berriro ere, klima aldaketaren aurka zaudetela esaten?

Hedabideak erabiliz gizartea engainatzen ari zarete zuek, garbi uzten duzue klima aldaketaren arazoaren kontra aritu beharrean arazoaren parte zaretela.

Parte hartu datorren urriaren 27an, arratsaldeko 17:00etan eta Donostiako Mendeurren plazatik (Easo ondoan) aterata, Gipuzkoako errauskailu toxikoaren kontra egingo den manifestazioan. Animatu!

## KOMUNIKAZIOA

## Tokikom sariak eta jardunaldiak EITBko egoitza nagusian

### TOKIKOM

Tabletak, smartphoneak... Gailu mugikorrak non-nahi topa ditzakegu, gero eta ugariagoak dira, eta goitik behera aldatzen ari dira edukiak eta informazioa kontsumitzeko modua. Baita eduki eta informazio horiek landu eta ekoizteko ere. Hori guztia hizpide izan zuten Tokikom jardunaldietan Bilbon, urriaren 22an EITBren egoitzan. Kazetaritza mugikorrari tarte zabala eskaini zioten, hitzaldiak eta tailer praktikoak landuz. Tartean izan ziren, besteak beste, alor horretan aditu diren Instituto RTVEko Santiago Hernandez Lechuga edota freelance modura eta kazetaritza mugikorrean aditu den Ana Lopez. Bertako esperientzia jaso zen ere,



Goiena komunikazio taldeko Xabier Urzelaireren eskutik. "Kazetari baten eboluzio pertsonala eta esperientzia" izenburupean alor horretan ematen ari diren aurrerapausoak azaldu zituen.

**Tokikom sariak**  
Jardunaldiaren hasieran tokiko hedabideetan

argitaratutako lanik onenak saritu zituzten. Edukirik onenaren saria Geuriak jaso zuen, eta azalik onena Goienak. Ikus-entzunezko onena Hirukak jaso zuen, eta publizitate kanpainarik onena, Arrasateko Udalak eta Arteman agentziak garatutako iragarkia, birziklatzea sustatzea helburu duena.

### POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea.  
20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzaila:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugarteandia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzailak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

|                                                                                                                      |                                                                                      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>EKOIZLEA:</b></p> <p><b>ALJATUAK:</b></p>                                                                      | <p><b>TOKIKOM</b></p>                                                                |
| <p>BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> </div> |                                                                                      |
| <p>DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around;"> </div>            |                                                                                      |
| <p><b>ZIURTAGIA:</b></p>                                                                                             | <p><b>BABESLEAK:</b></p> <p><b>Aiurriko harpidedunak</b><br/>ezinbestekoak dira.</p> |



PROTAGONISTA

# "Motor ikuskizunek interes handia pizten dute Urnietan"

**JOSU REDONDO** URNIETAKO XOXOKA MOTOR KIROL KLUBEKO KIDEA

Xoxoka Motor Kirol Klubak Urnietako Erratzu industriagunean hirugarren Slalom jaialdia antolatu du, igande honetarako.

**Motorzaileen festa duzue igandean. Zaletu gehiago hurbiltze aldera, eta mundu hori ezezaguna zaionarentzat, azalduko al zenioke zer den Slaloma?**

Euskadiko txapelketaren parte da, Erratzun osatu dugun zirkuitoan egingo dena. Parte-hartzaileek zirkuitua buruz ikasi eta ibilbidea nahastu gabe eta konorik bota gabe egin behar dute.

Azkarren egiten duenak irabaziko du. Denboren neurketan Euskadiko automobilismo federazioaren laguntza izango dugu.

**Zergatik da hain erakargarria slaloma, zure ustean?**

Parte-hartzaileentzat garrantzitsua da bertan parte hartzea, lasterketa Euskadiko Txapelketaren barruan sartzen delako. Bestalde, gaur egun ez da oso ohikoa horrelako



Josu Redondo Juarez idazkaria eta Asier Aramburu Gonzalez lehendakaria. XOXOKA

ekitaldi bat antolatzea edo ikustea. Urnietako Udalak lehiaketaren antolakuntzan interesa ipini du eta hori garrantzitsua da horrelako ekitaldi bat antolatzerako garaian.

Auto eta motor ikuskizunek interes handia pizten dute Urnietan. Antzematen da horrelakoetara gerturatzen direnek motoak, kotxeak edota kamioiak gustuko dituztela.

**Irailen auto klasikoen erakustaldia egin zenuten, urnietar askoren arreta piztuz.** Bertan parte hartu ahal izateko baldintzetako bat autoak 25 urte baino gehiago izatea zen. 68 bat parte-hartzaile izan genituen. Mila lagun inguru bildu ginen.

**Urnietako jendeaz gain, ingurukoak ere gerturatzen dira beraz?**

Bai, inguruko jende asko gerturatzen da Irun, Donostia, Villabona... baita Nafarroa edota Bizkaitik ere.

**Finantziario handia eskatzen al du horrelako probak?**

Bai, diru asko da. Seguruak, dortsalak, plazak, ibilbideak, eta horrelako gauzak antolatzerako garaian ere azpiegitura handia behar izaten dugu.

Herriko ostalaritzatik hasita, tailer mekanikoak eta bankuren bat badugu babesleen artean. Egia esan herriak asko lagundu digu.

**Nola gonbidatuko zenituzke eskualdeko herritarrek?**

Ziurtatua dagoela esango nieke. Autoa kontrolatu eta bueltaka edukitzea... kanpotik erraza dirudi, baina ez da horren erraza. Soinua, motorra, gasolina, goma errea,... Motorzale garenontzat oso gustukoak.

HAU ERE BADUGU!

**Niebla Martinez familiaren mina**



"Inork ez dezala gehiago, inoiz, guk une honetan dugun mina sentitu", familiaren adierazpenetik hartutako esaldia da. Larunbateko deialdiak, eta ondorengo bideoek zabalpen handia izan dute sarean. Ez da gutxigorako, urnietar gaztearen heriotzak oihartzun handia izan baitzuen Urnietan eta eskualde osoan. Gertaera salatzeke eta jasotako elkartasuna eskertzeko, senideek Urnietako Udalarekin elkarlanean elkarretaratzea deitu zuten San Juan plazan.

**Mus txapelketa Irunberri elkarte**



Urtean zehar egiten dituzten jardueren artean, mus txapelketa antolatuta zuten Irunberrin. Irabazleak Aitor Irastorza eta Lander Gonzalez izan ziren, eta sari gisa Irunberri tabernan afari ederra lortu zuten. Bigarren postuan Jon Irazu eta Iñigo Martinez geratu ziren, eta Kukutei harategian gastatzeko erosketa bonoa irabazi zuten.

**Eguraldi hotza dator astebururako**

Eskualdeko eguraldi adituak aditzera ematen ari direnez, astebururako negu giroa espero da. Hotza eta, beharbada, elurra Adarramendin.

KANPAINA

**Bizilagunak egitasmoa**

Azaroaren 11n hango eta hemen go familiek mahaiaren bueltan elkar ezagutzeko aukera izango dute. Azken urteotan SOS Arrazakeria egitasmoa Gipuzkoan sustatzen ari da Euskal Herriko, Europako eta munduko herri eta hiri askotan bezalaxe. 'Bizilagunak' dibertsitatearen aldeko ekimena da. Bi familiez gain dinamizatzaile bat izango da bazkarian.

Interesa duten familiek izena emateko aukera dute 943 321 811 telefono zenbakira deituta. [sorracismo.eu/bizilagunak-2018/](http://sorracismo.eu/bizilagunak-2018/) webgunean Beterri-Buruntzako pertsonen eta familiek izena emateko aukera dute.

GORA ETA BEHERA



**Urnietarren elkartasuna, sufritzen ari den familiarekin**

Oso gutxitan ikusten den irudia izan zen, aurreko larunbatean San Juan plazan eman zena. Asier Niebla Martinezen sendiak eta Udalak elkarretaratze isila antolatu zuten, eta hitzordura urnietar ugari bertaratu zen. Berezik, familiari elkartasuna adierazi eta justizia eskatzeko, berriro errepika ez dadin.





Plastikoa, errefusa eta organikoa biltzeko edukiontzia bat bestearen ondoan, Olagain auzoan, 2018ko martxoan. AIURRI

# Gaikako bilketa hobetzeko premia dago

Andoaingo herrian helburu gisa jarritako bilketa kopurua ez dira betetzen ari, eta ia aukera bakartzat ikusten da errefusarako edukiontzi grisa txertatzea. Inguruko beste herrietan antzeko sistemarekin emaitza onak lortzen ari dira

**J.A.Ubeda / A.Senperena** ANDOAIN  
Tolosa aldera joanez gero, Amasa-Villabonan bildutako hondakin guztiaren %82a sailkatuta biltzea lortu dute. Datuak eskuan, Udalak berriki herritarrek zoriondu nahi izan dituzte: "%82tik gora goaz! Horrela jarrai dezagun!". Atez ateko sistema alde batera utzi zuten han, bost edukiontzi aldeko apustuari eusteko (organikoa, errefusa, ontzi arinak, papera eta kartoia eta beira).

Andoainekin alderaketak egin hasita, Urnietako eredua egokiagoa da. Han organikoa

txertatu zuten lehenik, eta errefusarena ondoren. Errefusaren erabilera, gainera, Urnietan ere mugatua da. Sistemak bilketa selektiboaren datu orokorrean igoera eragin du, 2017aren azken hilabeteotako bilketa %68koa izatera iritsi baitzen (San Marko mankomunitatearen datuak dira). Udalak laster aditzera emango ditu aurtengo datuak, eta ziurrenik %65ko helburua bete dutela baieztatuko dute.

**Andoaingo hiru auzuneetan**  
Martxotik hona Andoaingo Alejandro Calonge, Olagain eta

Sorabilla auzuneetan errefusarako edukiontzi grisa esperientzia piloto modura erabiltzen ari dira. Aiurri astekaria hiru auzuneetara hurbildu da, hango auzotarren esperientzia gertutik ezagutu asmoz. Oro har, erabiltzaile modura, sistema gogoko dutela adierazi dute.

**EDUKIONTZI GRISA TXERTATU DUTEN INGURUKO HERRIETAN BILKETA DATUAK HOBETU EGIN DIRA**




## Urnietako sistema berdina



**BIAK ITXITA**  
ORGANIKOA ETA ERREFUSA  
2017ko urritik Urnietan itxita.



**BIETAN EDUKIONTZI GRISA**  
ERREFUSA  
Garai bateko berdearen ordeez.



**ORGANIKOA**  
EGUNERO ERABILGARRI  
Andoainen sistema berdina da.



**ERREFUSA**  
ASTEAN BITAN ERABILGARRI  
Andoainen astean lautan.

## Gaikako bilketa Urnietan



**2016:**  
**%48,6**

2016an zehar organikoa biltzeko sistema martxan zegoen Urnietan.

**2017:**  
**%55,2**

2017ko urritik aurrera errefusa jarztean igoera handia eman zen.

**2018:**

Urnietako Udalak laster emango ditu azken hamabi hilabeteotako datuak. 2017ko azaroan eta abenduan %68 portzentaia lortu zen bilketa selektiboan.

**Helburua:**  
**%65,00**

2016ko irailean datua %46koa zen. 2017ko irailean %53,9koa.



# Edukiontzia grisa martxan dagoen hiru auzoetako bizilagunen iritzia



**ANTONIA VALENTINA**  
SORABILLA

## Esperientziaren balorazioa

"Oso ondo iruditzen zait orain edukiontzia grisean txartela jartzea. Lehen inguruko herrietako jendea hona etortzen baitzen euren zaborra botatzera, eta oraingo sistema honekin hori ekiditea lortu dugu. Ez dakit zehazki zenbatero erabiltzen dugun, senarrak atera ohi duelako zaborra, baina gehien erabiltzen dugun edukiontzia organikoarena da".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Etxean birziklatzen dugu eta niri horrek balio dit. Ez dakit beste herrietan zer egingo duten, nik nire inguruan ikusten dudari begiratzen diot. Eta Sorabillan birziklatzen dela esango nuke".



**ALEX MAESTRO**  
SORABILLA

## Esperientziaren balorazioa

"Ez zait oso ondo iruditzen auzoan orain non eta nola jarri dituzten edukiontzia. Lehen tapaturik egoten zirenean ez baitzen kanpoan horrenbeste zabor biltzen. Astean bitan erabiltzen dut zaborrontzia, nire gurasoek gehiagotan".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Gehiago birziklatu beharko litzateke. Guk organikoarekin konposta egiten dugu, baina bakoitzak jakin behar du zer egiten duen bere zaborrarekin. Egia da askotan entzun dudala txarteldun sistema duten ondoko herrietako jendeak euren zaborra hona ekartzen dutela".



**DIEGO BARRASA**  
OLAGAIN

## Esperientziaren balorazioa

"Hondakinen sailkatze sisteman eta ingurugiroarentzako eta guretzat onak diren gauzetan parte hartzea oso positiboa iruditzen zait. Etxean hondakinen ontzi guztiak erabiltzen ditugu eta auzo honetan birziklatze tasak gora egin duela esango nuke. Hala ere, egia da, oraindik ohitura asko aldatu behar ditugula. Organikoan adibidez, poltsa biodegradagarriak erabili ordez jende askok hondakinak plastikozko poltsetan botatzen dituela ikusten dut".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Adinekoak dituen ohiturak aldatzea zaila izan daiteke, baina nonbaitetik hasi beharra dago".



**MARIA PADILLA**  
OLAGAIN

## Esperientziaren balorazioa

"Bakoitzak bere iritzia izan dezake, baina nik oso ondo ikusten dut. Organikoaren txartela etxean jaso nuenetik erabili dut, eta orain errefusarekin berdina. Ahal izan dudanean hasi naiz erabiltzen. Zaborra bi egunetik behin botatzen dut".

## Igoko al da birziklapen tasa?

"Baietz espero dut. Gainera zaborrontzien ingurua garbi ikusten dut, eta hori da helburua; ingurua garbi mantentzea eta ahalik eta gehien birziklatzea".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Auzo bakoitzaren arabera dela esango nuke. Olagainen ongi birziklatzen dugula uste dut".



**ANTONIO SEVILLA**  
SORABILLA

## Esperientziaren balorazioa

"Edukiontzia itxeko erabakia ondo iruditzen zait. Aspalitik, gainera, kanpoko jende asko etorri izan da hona zaborra botatzera eta itxierak horretan lagunduko digula iruditzen zait".

## Igoko al da birziklapen tasa?

"Nik errefusa ez dut asko erabiltzen. Nire zabor guztia gaika sailkatzen dut. Guztion artean herrialde garbiagoa izatea da garrantzitsua".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Zerbait entzun dut bai, eta guk birziklapenaren %100era iritsi beharko genukeela iruditzen zait".



**JOXE AMARO**  
OLAGAIN

## Esperientziaren balorazioa

"Oso ondo. Ixtean inork ezin baitu edukiontzia ireki eta dena bertan geratzen da. Bi gara etxean eta bi egunez behin edo ateratzen dugu zaborra. Zerbait kostatzen zaigula esan behar dut. Askotatik ez dugu ez dugunez, dena sailkatuta edukitzea kostatzen da. Baina azkenean ondo egiten saiatzen gara".

## Andoingo birziklatze baxua:

"Nik ez dut uste hori horrela denik. Nire inguruan ditudan andoaindarrak behintzat, guztiok birziklatzen dugula esango nuke. Bai etxean, eta baita dendetan ere".



**XABIER LOPEZ**  
SORABILLA-BORDABERRI

## Esperientziaren balorazioa

"Ondo, behin hondakinak sailkatzen hasita, sailkatzeko edukiontzia errazena errefusarena dela esango nuke nik. Arazo bakarra dugu. Sorabillan elizaren ondoan dago edukiontzia grisa eta auzoa oso zabala da. Bordaberriko oso urruti geratzen zaigu. Astean behin edo bi astetik behin erabiltzen dugu. Oso gutxitan sortzen baita. Espazio aldetik edukiontzia bat gehiago besterik ez da, eta oso gutxitan betetzen da. Pardelak kenduta, errefusarena ez da usain gehien botatzen duen hondakina".



**IXIAR OTAÑO**  
ALEJANDRO CALONGE

## Esperientziaren balorazioa

"Egokia eta erraz erabiltzekoa iruditzen zait txartelarekin ireki beharreko sistema berria". Nolanahi ere, haserre agertzen da, izan ere, lehen bezalatsu orain ere kanpotik etorritako jendeak bertan zaborrak uzten segitzen duelako, eta okerragoa dena, horiek txartelarik ez edukitzeagatik kanpoan uzten hasi direlako: "Aurreko egunetan, esate batera, lurrean botata zeuden bi poltsa errefusaren edukiontzira neronek bota behar izan nituen".

Auzoz kanpokoek ez ezik bertakoren batek ere zaborrak



Alejandro Calongen errefusaren eta organikoaren edukiontzia itxien artean pertsona batek hondakinak utzi ditu lurrean, ezkerrean eta distantzia gutxira paperari eta kartoiari dagokion edukiontzia bertan duenean. AIURRI

kanpoan uzten dituela uste du: "Sistema egokia da, baina horretarako moldatzeko kontzientzia eta gogoia eduki behar da. Nahi duenak lortuko du, nahi ez duenak ez". Etxean familiari ez zaio batere kostatu hondakinak sailkatzea, "Betidanik eduki dugun kultura da; akaso gure kasua apartekoa izango da, izan ere organikoak baserriko ganaduarentzat eramaten baitugu.

Ohitzea besterik ez da. Izatekotan ere, adineko jendeak eduki dezake zailtasunen bat...".

## Andoingo birziklatze baxua:

Ez du ulertzen zergatia: "Hezikleta kontua da; hotzean pentsatzen jartzen zara, eta benetan, ez da batere zaila geuk sortzen ditugun hondakinak sailkatzea. Tristeena izaten da kontzientziarik ez daukan jendea behartu behar izatea ondo funtziona dezan".



# Urteurreneko ospakizunak liburutegian

Urriaren 24an liburutegiaren eguna ospatzen da nazioartean, eta Andoainen bereziki 56 urte betetzen dira liburutegia zabaldu zenetik. Hitzordu ezberdinak antolatzen ari dira egunotan, besteak beste, Iñaki Irazu poetaren hitzaldia ostegun honetan



Daniel Dorronsorok origami tailerra eskaini zuen Udal Liburutegian. Deialdiak arrakasta izan zuen, plaza guztiak bete baitziren. **AIURRI**

## Xabier Lasa URNIETA

Iñaki Irazu poetak oraindik orain kaleratutako 'Errukiaren saria' liburu eta Andoaingo gaztetako oroitzapenak hizpide hartuta hitzaldia eskainiko du.

Asteartean, papiroflexiari buruzko tailerrak eman zion hasiera programazioari. Daniel Dorronsoro adituaren eskutik, Origami tailerrarekin gozatzeko aukera eduki zuten haurrek; paperaren bidez adierazpen artistikoetan nola trebatu litekeen ikasi zuten.

## Iñaki Irazuren hitzaldia

Urriaren 25ean, Iñaki Irazu Andoaingo poetaren txanda helduko da. Hitzaldiari begira Irazuk zera aitortu du: "hitzen argia behar dugu, non gauden esango diguten, bizi duguna argituko diguten hitzak: esan egingo dutenak (gaituztenak). Argi horren bila jotzen dugu, besteak beste, liburuetara". Argiaren bilaketa horretan, Irazurentzat gaztaroan Andoaingo liburutegiak garrantzia itzela eduki zuen. Liburu-

tegi horrekin eta bertako liburuekin edukitako harremanaz gain, Andoain eta andoaindarrak ardatz dituzten beste hainbat kontu izango ditu mintzagai Irazuk hitzaldian.

Urriaren 30ean, bi hitzordu jarri dituzte haur zein helduentzat. 4-5 urteko haurrentzat ipuin kontaketa antolatu da 17:30etatik aurrera, Maider Alcelay ipuin kontalariaekin. 19:00etatik aurrera, berriz, Ana Malagonen

'Gelditu zaitezte gurekin' ipuin bilduma ardatz izanda literatura solasaldia egingo da, Ane Muñozen gidaritzapean.

## Ospakizun berezia asteazkenean

Liburutegiaren Nazioarteko eguna eta Andoaingo liburutegiaren 56. urteurrena ospatzeko, asteazkenean bertako liburuzainek egindako pintxo-bizkotxo dastatu ahal izan zuten liburutegiko erabiltzaileek.



Iñaki Irazu idazlea. **AIURRI**



**AIURRI**

## Herrien eguna Zumea plazan

Larunbat honetan, egun osoan zehar, Herrien jaia ospatuko da Andoainen. 12:00tan hasita Gora Kalexiki bandaren kalejira eta ondoren Olagain eta Alberto Agirre abesbatzaren emanaldia. 16:30tan, dantza eta musika saioa: Zumba, Donostiako Extremadurako elkarte, Triana eta Zambra.



**AIURRI**

## Karobia piztuko dute berriro

Burdina taldeak azken urteotako tradizioari eutsi eta Ortzaka baserriko karobia pizteari ekingo dio, Joxe Paulo Usandizaga kidea zena omentzearekin batera. Larunbatean, eguerdiko 12:00tan egingo dute ekitaldi nagusia.



**AIURRI**

## Eraldaketa Zumea plazatxoan

Joan zen asteazkenean ekin zioten Zumea plazatxoko eremua berritzeari. Erdialdean zegoen belarditxoak kendu eta plazatxo eraberritu nahi dute eserleku eta lore-ontzi berriak ipintzeko. Helburua eremu irekiagoa lortzea da.





Larunbat eguerdian dozenaka izan ziren Urnietako plazara hurbildu ziren herritarrek, Nieblaren senideekin bat egitera. AIURRI

# Saminean lagun ugari dute

Asier Niebla Martinezen familiak eta Urnietako Udalak emozioz beteriko ekitaldia antolatu zuten joan zen larunbatean, San Juan plazan. Sare sozialetan aurreikusi zen bezala, ostegunean zabaldu zuten deialdiak erantzun zabala izan zuen

**J.A. Ubeda / Xabier Lasa** URNIETA  
Dozenaka, ehunka urnietar gerturatu zen San Juan plazara. Borobilean jarrita, senideen eta lagunaren pankarta inguruan bilkura isila egin zuten. Isiltasuna elkartasunezkoa zen. Senideak

bertan izanik, gainera, emozio handiz bizi izandako bilkura bilakatu zen. Emozioek eta malakoek gainezka egin zuten elkarretaratzearen amaieran senideek adierazpena irakurri zutenean. Galera erreparaezina jasan dute

Niebla Martinezen familian. Hutsunea ordezkazezina bada ere, urnietarren eta erakundeen berotasuna jaso zuten. Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritza bana ere hurbildu zen ekitaldia.

## Etxekoak eta lagunak justizia eske

Niebla Martinez familiak eta Asierren lagunak pankarta banarekin parte hartu zuten ekitaldian. Emozioak gaindituta izan ziren, bereziki adierazpena irakurtzen aritu ziren bitartean. Emozio handiko unea izan zen.



AIURRI

## ZABALIK

ASIER NIEBLA MARTINEZEN SENIDEAK URNIETA

# Justizia nahi dugu eta ez mendekua

Guretzat, gaurkoa, egun tristea da, azken egunak bezala. “Zentzugabekeriaren” aurkako borroka gogoangarri baten ondoren, gaurkoa da hausnarketak gogorren kolpatzen gaituen eguna. Bere definizioak esaten duen bezala, zentzugabekeria “logikarik gabeko, irrazional eta ezin justifikatuzkoa den ekintza edo gauza” da eta horregatik gaude gaur hemen, ezagutu duten guztiek definitzen duten bezala, handi bati negarrez; eta orainaldian esaten dugu oraindik handia izaten jarraitzen duelako. Bere azken txanpan, zen bezalakoa izaten jarraitu du, maila goreneko pertsona, bere apaltasun eta handitasunarengatik. Bere organoak emanez bizitza eman du eta ezagutuko ez dituen pertsonaiei esperantza eman die, hala ere, euren barruan berea den zer bait izango dute. Bere bihotzak taupadaka jarraituko du!!!

Ospitalean egonez oparitu zizkigun 61 egunetan esaten genion bezala: “Asier, hemen gaude, maite zaitugu”. Zauden tokian zaudela jarraitu zure irribarrearekin. Adierazezina den arte borrokatu zenuen, lo sakon batek harrapatuta, ziur, izan zenituen kontzientzia une horiek oparitzeko, handi batek bezala agur esateko. Une horietan, zure ohe ondoan gure maitasun guztia ematen egon garen guztion babesa sentitzea espero dugu. Asier, hemen egoten jarraituko dugu!!!

## Justizia nahi dugu eta ez mendekua

Ezin dugu herentziatzat utzi goizeko ordu bietan emakumeak, beldurra dela medio, norbaitek lagunduta edo atzera begiratu etxera korrika joatera behartzen dituen mundu bat, ezin dugu gure seme-alabak hisiaz jotako bikotekide jeloskorrek hiltzea baietsi, ezta egun batean parrandara joan eta “zentzugabekeriarengatik” ez itzultzea ere.

Ezin dugu onartu!

Justizia nahi dugu eta horrek galdutakoa itzuliko ez badigu ere, kasu hauetarako zigor gogorrak eskatu nahi ditugu. Inork ez dezala gehiago, inoiz, guk une honetan dugun mina sentitu. Justizia eta legea aldatzea eskatzen dugu, ezin dugu onartu kartzelan hilabete gutxi batzuk egotearekin gizarteari ordaintzea, gizarte honek gehiago eskatzen duelako horren alde borrokatzen jarraituko dugu. Justizia!

Azkenik, jaso ditugun animo mezu guztiengatik eskerrak eman nahi ditugu, bai jendeari eta baita erakundeei ere, bereziki, Urnietako Udalari.

Asier, hemen jarraitzen dugu!



AIURRI



# Bake eta bizikidetza jardunaldiak hastear dira

Urriaren 30ean hasi eta azaroaren 20ra bitarte lau saio ezberdinetan bakea eta bizikidetza hizpide izango dute Urnietan. Ikus-entzunezkoa, antzerkia, hitzaldia eta kafe tertulia saio bana iragarri dituzte

## Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udala bakean eta bizikidetzan sakontzeko bidegileetakoa da, Gipuzkoako herriei dagokionean. 2014tik hona Euskal Herriko adituak ekarri izan dituzte, eta baita kultur ekoizpen ezberdinak eskaini ere. Hori guztia herritarren parte-hartzea alde batera utzi gabe. Izan ere, aurtengo jardunaldiak kafe tertulierekin amaituko dira. "Zer egin dezakegu herritarrok bizikidetzaren alde?" izenburupean, urnietarren arteko solasaldia sustatu nahi dute. Izena emateko aukera zabalik dago urnietabizikidetza@gmail.com posta elektronikora idatziz.



Alkatearekin batera, EAJ-PNVko eta EH Bilduko Udal ordezkariak hurbildu ziren zikloaren aurkezpen ekitaldira. AIURRI

## Lehen hitzorduak datorren astean

**S(u/a)minetik bakera**  
**Urriak 30, asteartea.**  
**19:00, Lekaio.**

**Euskara, gaztelania.**

Sumina eta samina atzean utzita, bakera arteko bidea egiten laguntzea da ikuskizunaren helburua: "Eskua eman beste pertsona horri, sekula pentsatuko ez zenuena. Arantzak kendu eta elkarri aurpegiara begiratzea. Sumina eta samina atzean utzi eta bakea topatzea". Abiapuntua Olatz Etxabe (Batallón Vasco Español-ek eraildako Iñaki Etxaberen alaba) eta Sandra Carrasco (ETAK eraildako Isaias Carrascoren alaba) dira.

**Bizimiñak**  
**Azaroak 6, asteartea.**  
**19:00, Lekaio.**  
**Euskara.**

Urte luzez bizi izan den mina, gorrotoa, itsutasuna edota isiltasuna agertokira eramanda. Nafarroako Bera aldeko Itziar Elias, Maddi Iratzoki eta Dani Iratzokiren parte-hartzearekin.



Sandra Carrasco eta Olatz Etxabe. ARTEMAN



Dani Iratzoki, Maddi Iratzoki eta Itziar Elias. UKH



Urriaren 29tik aurrera martxan jarriko da neurri berria. U.UDALA

## Oinezkoen pasabideari tarte zabalagoa Zaldundegi parean

Proba modura errail bakarreko pasabide bilakatuko dute ibilgailuentzat, semaforo bidez bideratuko dena

### Jon Ander Ubeda URNIETA

A15 autobiak herri barruko trafikoa nabarmen arindu badu ere, Idiazabal kaleak Urnietako arteria nagusi izaten jarraitzen du. Zaldundegi parera iritsita, bihurtune hori zaharkitua geratu da. Bereiziki, oinezkoentzat. Udalak, proba modura, pasagune hori semaforo bidez bideratuko den erreil bakarreko errepide bihurtu, eta oinezkoen alde banatuko pasabideak zabaldu egingo ditu. Behin-behineko neurria izango da, eta denbora tarte horretan plastikozko hesiekin ibilgailuen eta oinezkoen tartea bereiztuko dituzte.

### Datorren astelehenetik aurrera

Urriaren 29tik aurrera indarrean jarriko da neurri berria, eta Udalak arretaz gidatzeko deia luzatu du. Bide-segurtasuna bermatze aldera, Udaltzaingoa gidariei eta oinezkoari argibideak emateko bertan izango da. Proba garaiaren epealdia ez dago

zehaztuta, baina argi dago etorkizun hurbilean Zaldundegi parean antzeko egitasmoa finkatuko dutela. Asteotako esperientzia ondorioak ateratzeko baliagarria izango da.

Neurri berriak inguruko kaletan eragina izango du. Etena elkartearen atzeko kalearen norabidea aldatu egingo da, esaterako. Aurrerantzean auto gidariak Idiazabal kaletik sartuko dira Etxeberri aldera jarraitzeko.

Bestalde, Idiazabal kalera doan taxien geltoki zaharreko kaltetatik ezingo da ibilgailuekin Zaldundegi aldera joan. Eskuinera hartu eta gidariak aurrerago egin beharko dute norabide aldaketa, Hernani aldera joateko asmoa baldin badute behintzat.

Udalak aditzera eman duenez, proposamena 2017ko parte-hartze prozesutik dator. Irigarritasuna bermatzea da ekinbide berriaren helburu nagusia.



Pagola alkateak eta Segurado zinegotziak eskaini zituzten xehetasunak. U.UDALA



# Euskalduna futbol taldea osatu zutenen liburua

Euskalduna futbol taldeari buruzko bigarren liburua argitaratu du Jose Javier Zatarainek. Maila ezberdinetako taldeen argazkiak, jokalarien izenak eta sailkapenak biltzen ditu ia hirurehun orrialdeko liburua

**Xabier Lasa** ANDOAIN  
"Euskalduna K.E. taldeko hiru- rogeita hamasei denboraldi (XX- XXI. mendeak)" du izenburua liburua, eta 15 eurotan jarri da salgai Ernaitza, Stop eta Delgado liburudendetan.

Bertan, 1923an sortu zen klu- beko maila ezberdinetako taldeen makina bat argazki ikus daitez- ke, eta horiekin batera denbor- aldiz denboraldiko jokalarien eta lehendakariaren izen-abizenak eta sailkapenak.

Aspalditxo bere buruari erron- ka berezia ezarri zion: Euskal- dunaren historia irudietan eta datuetan jasoko zuten hiru li- buru kaleratzea. 'Euskalduna andoaindarra K.E. 75 urteurre- na-75 aniversario S.D. Euskal- duna' izan zen lehenbizikoa, 1998an. Bigarrena, aurkeztu berri du; eta hirugarrena, klu- baren mendeurrenarekin bate- ra egina edukitzea espero du, 2023an. "Osatua izango da datu eta estadistiken aldetik; ehun urte horietan Euskaldunaren elastikoa jantzi duten jokalar- i guztien ibilbidea erakutsiko du, zein mailetan jokatuak diren, zenbat minutu zelaian, zenbat gol...".

Txinaurriaren lana hartu zuen gizonak bere bizkar, eta setati jarraitzen du. "Gipuzkoako Fe- derazioko idazkari den Patxi Gabilondok esan izan dit he- rrialdean Reala eta besteren bat kenduta, beste inork ez dauka- la gureak daukan artxiboa, ar- gazkietan eta datu pilaketan".

**Euskalduna, bihotzean**  
Argazkilaritza eta Euskalduna, horiek izan dira Zatarainen afi- zio eta pasio iturri betidanik, eta bere bizitzako makina bat ordu eta ahalegin eskaini dizkie. Oraingo honetan, berak bildu ditu argazki eta datu guztiak, eta berak maketatu du liburua. Hori eginda, Euskaldunari es- kaini dio material guztia, honek



Jose Javier Zatarain Euskaldunari buruz idatzi dituen bi liburua eskuetan. AIURRI

inprimatu eta salgai jarri dezan. "Euskalduna futbol taldeari egin diodan oparia da liburua", bere esanetan.

"Aitona eta aita Euskalduna- ko lehendakariak izan ziren, eta niri ere transmititu zidaten klub urdinarekiko maitasuna. 29 ur- tez izan nintzen zuzendaritza batzordeko kide". Horrela, bera izango da klubeko zuzendaritzan urte gehien egin dituen pertso- na. Oraindik orain zendu den Joxan Huizi datorkio oroitzape- nera, atzera begira jarri orduko: "Azken urteak Joxan Huizi lehendakariarekin egin nituen. Fundamentu askoko lehendaka- ria izan zen, eta klubak aurre- rapauso handia eman zuen an- tolakuntzaren eta prestigioaren aldetik. Osasunagatik ez balitz, Joxeane jarraituko luke lanean. Pena izugarria ematen dit berak ezin izan duelako ezagutu libu- ru hauxe".

Gaur egungo taldearen zuzen- daritza oso esku onetan dagoela iruditzen zaio. "Gazteak dira eta gogo biziz hartu du orain sartu den jendeak, eta seriotasun handia ikusten diot. Ez daukate lan erraza egiteko, izan ere, ez da esker onekoa. Gauzak ondo doazenean inor ez da ohartzen

atzean zein dagoen, baina zer- baitek huts egiten badu, orduan agudo datozkizu kritikak, are gehiago denak ezagunak garen Andoain bezalako herri batean".

**Esku bete lan**  
Argazkiak eta Andoain (ziklismoa, areto futbola eta inauteriak) ardatz dituzten hiru liburu kaleratu izan ditu Zatarainek azken urteetan. Bestalde, Zubietako hipodromoko zaldi lasterkariaren eta horien pres- tatzaileen ingurukoak ere jorra- tu izan ditu. Beste hainbeste li- buru eta gehiagorako materiala gordeta daukala aitortzen du Zatarainek. "Nolanahi ere, saia- tuko naiz poliki-poliki argitaratzen guztia, lanean jardun ahala". Bien bitartean, facebooken daukan kontua (andoaindarra de futbol) egunero-egunero elikatzen jarrai- tzen du, argazki kamerarekin futbol zelaietan, lasterketan edo- ta kultur ekitaldi anitzetan ate- ratzen dituen argazkiekin.

**"IRAGANEAN AITONA ETA AITA EUSKALDUNAKO LEHENDAKARIAK IZAN ZIREN"**

## KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

### FUTBOLA

#### PREFERENTE MAILA

##### EMAITZAK

Tolosa-Euskalduna 1-2

Trintxerpe-Urnieta 6-2

##### SAILKAPENA

1 Astigarragako Mundarro 15 puntu

2 Euskalduna 15 puntu

14 Urnieta 3 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDAK

17:40 Euskalduna-Mundarro / Lar, 27

18:00 Urnieta-Santo Tomas / Lar, 27

### GORENGO MAILA, NESKAK

##### EMAITZAK

Urnieta-Aloña Mendi 2-0

Oiartzun-Euskalduna 2-6

##### SAILKAPENA

1 Urnieta 12 puntu

5 Euskalduna 7 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Goierri Gorri-Urnieta / Ig, 28

15:30 Euskalduna-Bergara / Lar, 27

### ERREGIONAL MAILA

##### EMAITZA

Euskalduna-Danena 0-0

##### SAILKAPENA

1 Danena 16 puntu

5 Euskalduna 10 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Lengokoak-Euskalduna / Lar, 27

### JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

##### EMAITZA

Euskalduna-Beasain 3-2

##### SAILKAPENA

1 Billabona 18 puntu

2 Mondragon 15 puntu

3 Euskalduna 12 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Bergara-Euskalduna / Lar, 27

### JUBENIL MAILA

##### EMAITZAK

Mundarro-Euskalduna 4-1

Urnieta-Ostadar 2-3

##### SAILKAPENA

1 Usurbil 16 puntu

4 Urnieta 12 puntu

7 Euskalduna 3 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDAK

19:30 Euskalduna-Billabona / Lar, 27

12:00 Hernani-Urnieta / Lar, 27

### ESKUBALOIA

#### SENIOR MAILA

##### EMAITZA

Urnieta-Elgoibar 29-20

##### SAILKAPENA

1 Haritza Eibar 6 puntu

4 Urnieta 4 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

10:15 Haritza Eibar-Urnieta / Ig, 28

### SENIOR MAILA, NESKAK

##### EMAITZA

Leizaran-Ordizia 28-16

##### SAILKAPENA

1 Urbil Usurbil 4 puntu

2 Leizaran 4 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Leizaran-Zeppelin / Lar, 27

### SENIOR 2. MAILA

##### EMAITZA

Corazonistas B-Urnieta 26-31

##### ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Urnieta-Tolosa B / Lar, 27

##### EMAITZA, 2. MULTZOA

Hondarribia-Leizaran 28-31

##### SAILKAPENA

1 Urola Laztimendi 8 puntu

3 Leizaran 6 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Leizaran-Orioko / Lar, 27

### JUBENIL MAILA

##### EMAITZA

Urnieta-Endika 26-19

##### SAILKAPENA

1 Hettich ZKE 8 puntu

2 Urnieta 6 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Legazpi-Urnieta / Lar, 27

##### EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Amenabar 25-21

##### SAILKAPENA

1 Leizaran 8 puntu

2 Ereintza 8 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Arrasate-Leizaran / Ig, 28

### JUBENIL MAILA, NESKAK

##### ASTEBURUKO PARTIDA

17:15 Urnieta-Egia / Lar, 27

##### EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Usurbil 13-32

##### SAILKAPENA

1 Usurbil 10 puntu

5 Leizaran 6 puntu

##### ASTEBURUKO PARTIDA

13:00 Aiala ZKE-Leizaran / Ig, 28

### SASKIBALOIA

#### JUNIOR MAILA

##### EMAITZA

Hernani-Ganbara 67-10

##### ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Take / Lar, 27

### KADETE MAILA

##### EMAITZA

Ganbara-Take 20-84

##### ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Hernani-Ganbara / Ig, 28



# HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 25

### URNIETA Irekiera

Magale haur ikastetxearen haur eskolako instalakuntza berrien irekiera ekitaldia.

**17:00, Presentacion de Maria.**

### ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko batzaraldia.

**19:00, Udaletxea.**

### ANDOAIN Aurkezpena

"Errukiaren saria" Iñaki Irazuren liburu aurkezpena.

**19:00, Udal liburutegia.**

## OSTIRALA 26

### URNIETA Euskaraldia

Zubitxo plazan izena emateko aukera eskaintzeaz gain, jarduera ezberdinak antolatu dituzte.

**18:00, Ipuin kontaketa.**

**19:30 Gaztain jatea.**

### ANDOAIN Deialdia

Erraustegiaren aurkako manifestazioarekin bat egiteko argazki jendetsua atera nahi du Ipar Haizeak Andoainen.

**18:30, Bekoplaza.**

### ANDOAIN Sariketa

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, XXX. urteurrenoko ekitaldi nagusia.

**19:00, Bastero.**

### ANDOAIN Lehiaketa

Bidaieen aholkuei buruzko "Gomendatzen dizut" lehiaketa, 12-18 urtekoentzat. Saria: 60 euroko erosketa-txartela.

**Gazte Informazio gunea.**

### ANDOAIN Lehiaketa

Guitar Hero lehiaketa.

**Gazte Lokala.**

## LARUNBATA 27

### ANDOAIN Tailerra

Familiei jolasaren bidezko zentzumen-estimulazioaren onurak erakusteko tailerra. 2017an jaiotako haur eta familientzat. Izen-ematea: 943 590 557.

**10:30, La Salle Berrozpe.**



Errementari euskal filmak nazioartean oihartzun zabala lortu du. ERREMENTARI

### URNIETA Halloween giroko hitzorduak

Haur eta gazte askoren gogoko hitzorduak Urnietan, datozen egnetan. Beldurrezko etxean parte hartzeko izena eman beharra dago. Egun berean, 16:30ean hasita.

**Urriak 31, asteazkena. 17:00, Sarobe. Errementari filma.**

**Azaroak 2, ostirala. 17:00-19:30, Lekaio. Beldurrezko etxea.**

### ANDOAIN Ortzaikako karobia

Piztuera ekitaldia, Burdinaren eskutik.

**12:00, Ortzaikako karobia.**

### URNIETA Trafikoa

Slalom proba dela eta, Esnelat pareko aparkalekuan ezin izango da ibilgailurik utzi.

**Hasiera: 15:30. Larunbata, 27.**

**Amaiera: 09:00. Astelehena, 29.**

### DONOSTIA Manifestazioa

"Erraustegia gelditu!" lemapean.

**17:00, Mendeurren plaza, Amara.**

## IGANDEA 28

### URNIETA Slalom proba

Xoxoka Motor Kirol Klubak antolatuta.

**10:30, Erratzu industrigunea.**

### URNIETA Ikuskizuna

'Burbuila' familia ikuskizuna. Xaboi burbuilez osaturiko komedia zoroa.

**17:30, Sarobe. 3 euro.**

### ASTIGARRAGA Bertsoak

Aitor eta Jon Mendiluze aita-semeak bertsotan arituko dira Petritegin, Sagardogileen elkarteak antolaturiko 'Sagastitik kupelera' zikloan.

**11:00-13:00, Petritegi.**

## ASTEARTEA 30

### ANDOAIN Hitzorduak liburutegian

Maider Alcelay kontalariaren saioa.

**17:30, Udal liburutegia.**

Ane Muñozen gidaritzapean.

**19:00-20:30, Udal liburutegia.**

### URNIETA Ikus-entzunezkoa

'S(u/a)minetik bakera', bake eta bizikidetzaren jardunaldiak. Xehetasunak 12. orrialdean.

**19:00, Lekaio. Euskara, gaztelania.**

## ASTELEHENA 5

### ANDOAIN Lehiaketa

Argazki lehiaketa deitu du Udalak, 2019ko Udal egutegia osatzeko. Parte hartzeko aukera zabalik dago, azaroaren 5a bitarte.

**andoain.eus.**

## ASTEARTEA 6

### URNIETA Ikuskizuna

'Biziminak', bake eta bizikidetzaren jardunaldiak. Xehetasunak 12. orrialdean.

**19:00, Lekaio. Euskara.**

## ZINEMA

### ANDOAIN

#### BASTERO

**La sombra de la ley**

Lar., 27: 19:30;

22:00.

Ig., 28: 19:30.

Astelehena, 29:

19:30; 22:00.

### Ana y Bruno

Lar., 27: 17:00.

Ig., 28: 17:00.

### URNIETA

#### SAROB

**Errementari**

Astzk, 31: 17:00.

Euskaraz.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**Ha nacido una estrella**

Lar., 3: 19:30;

22:00.

Ig., 4: 19:30.

Astl., 5: 19:30;

22:00.

### Go!Azen

Lar., 3: 17:00.

Ig., 4: 17:00.

Denboraldi berriko lehen kapituluaren aurrestreinaldia. Kapitulu berriak azaroaren amaieran, Euskal Telebistan.

## SINOPSIAK



### La sombra de la ley

**Zuz.:** Dani de la Torre. **Herr.:** Espainia (2018). **Iraupena:** 126 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

## Emakumeen borroka anarkismoan

Espainia, 1921. Harroputz eta anarkisten arteko kale istiluak dira nagusi. Uriarte polizia

Bartzelonara bidali dute lapurren bila, eta Sara gazte borrokalaria ezagutuko du.

### Errementari

**Zuz.:** Paul Urkijo Alijo. **Herr.:** Euskal Herria (2017). **Aktoreak:** Kandido Uranga, Uma Bracaglia, Itziar Ituño... **Iraupena:** 98 min.

## Patxi errementaria eta deabrua

10 urte pasatu dira 1833ko lehenengo Gerra Karlistatik. Arabako herririka batean, Alfredo izeneko Diputazioko komisarioa gertakari bat ikertzen ari da, eta arrastoei

jarraika Patxiren errementariari iritsi da. Usue izeneko neskatxa batek errementarian sartzea lortzen du, eta agerian uzten du Patxik ezkutatzen duen egia.



**Datorren Aiurri astekaria azaroaren 8tik aurrera Andoainen eta Urnietan**

**www.aiurri.eus webgunean**

**ALBISTEAK, DEIALDIAK, MULTIMEDIA**

**www.aiurri.eus**




ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Unax**  
Azaroaren 1ean  
Unaxek 8 urte  
beteko ditu,  
zorionak  
eta muxuak.  
Etxekoak.



ANDOAIN  
**Aitona**  
84 urte  
dagoeneko!  
Zorionak eta  
muxu handi bat.  
Asko maite  
zaitugu. Etxekoak.



ANDOAIN  
**Lier**  
Urriaren 27an 8  
urte. Oso ondo  
pasa eta muxu  
handi-handia  
Andoaingo amona  
eta aitona.



URNIETA  
**Maitane eta Joseba**  
Maitanek 16 urte  
eta Josebak 10 urte  
beteko dituzte urriaren 21 eta  
27an. Asko maite zaituztegu,  
muxuak eta besarkadak  
etxekoan partetik.

BUS ZERBITZUA

ANDOAIN, AZAROAK 1

Andoaingo Udalak hilerrira joateko hiribus zerbitzuaren ordutegiak moldatuko ditu. Sorabillatik busa abiatuko da hilerri aldera, 09:30etik 12:30era orduro. Hilerritik, aldiz, 10:10etik 13:10era orduro jaitsiko da. Arratsaldean, antzekoa izango da eskaintza. Sorabillatik busa abiatuko da hilerri aldera, 15:30etik 17:30era orduro. Hilerritik, aldiz, 16:10etik 18:10era, orduro.

MERKATU TXIKIA

Gasze euskalduna arratsalde zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850.**  
Andoainen zaintzailea behar da eguerditan bi haur zaintzeko: **650 341 108.**  
Piaggio ZIP 50 2T motoa salgai, oso modu onean. Segurua eta ITVa pasata: **610 953 258.**  
Autokarabana: Adriatik 680SK. 73.000 km. 2800 motorra, 145 CV. **688 610 809** (Ainhoa).

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

**Larunbata 27 eta igandea 28**  
PAJARES: Zumea kalea, 20.  
943 592 629. Andoain.

URNIETA

**Larunbata 27 eta igandea 28**  
GOMEZ: Kale Nagusia, 14.  
943 554 892. Hernani.  
Gauetz, bi herrietan: Castilla.  
943 552 941. Hernani.

# Kazetaritzaren mugarriak sarituko dituzte

Urriaren 26an, ostiralarekin, arratsaldeko 19:00tan hasita izango da aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ekitaldi nagusia Andoainen, Bastero kulturguneko auditorioan. Ekitaldian zehar, euskarazko kazetaritza garaikidea aintzat hartuko da

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Aurtengo edizioa guztiz berezia izango da, '30 urte 10 mugarri lelopean', azken berrogeita hamar urteetan euskarazko kazetaritzan mugarri izan diren hamar eragile sarituko baitira, euskarazko kazetaritzak egin duen aurrerabide itzelean protagonista nagusi izan direnak. Beraz, ez da izango ohiko edizio bat, kazetaritzako eta komunikazio munduko azken urtean izan diren lanik onenak sarituko dituen; izendaturiko epaimahai berezi batek atzera begiratu egin du, Rikardo Arregi zenaren heriotzaren garaietaraino joan, azken berrogeita hamar urteei begiratu, eta euskarazko kazetaritzak egin duen ibilbidean mugarri izan direnak ezagutu eta saritzeko.



**Ekitaldi musikatua Basteron, 19:00tan hasita**  
Hori dela-eta, Andoaingo Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politikarako Sailaren laguntzaz, ekitaldi berezia

antolatu du, non hamar sarituei egin duten lanaren aitortza egin-go zaien, Xabier Laka eskultoreak bereziki egindako eskultura bat haien esku jarritz.

Sari-banaketa ekitaldi musikatua izango da, Joxan Goikoe-txea eta Iosune Marin musikariak eta Olatz Prat kantariak jantzi-ko dutena.

**'30 URTE 10 MUGARRI' LOPEAN KAZETARITZAREN HAMAR ERAGILE SARITUKO DITUZTE'**

**ETB-K EGIN DUEN 'ZUBI LANA' DOKUMENTALAREN AURRERAPENA ESKAINIKO DUTE**

**BASTEROKO EKITALDIRA IKUSLE MODURA JOATEKO, GONBIDAPENA BEHARREZKOA DA**

**'Zubi lana' dokumentala**  
Gainera, azken 30 urteei errepasoa egingo dien bideo laburrak gain, On Time ekoiztetxeak eta EITBk aurtengo edizioaren inguruan berariaz egin duten 'Zubi lana' izenburuko dokumentalaren aurrerapen laburra eskainiko da. 'Zubi lana' dokumentalean, hain zuzen ere, azken berrogeita hamar urteetan euskarazko kazetaritzak eta komunikazioak bizi izandakoen kontaera egiten da.

Ekitaldira bertaratzeko direnak ez dira ez esku hutsik joango: hamar mugarrien berri ematen duen liburuskaz gain, aipatu dokumentalaren ale bana eramango dute etxera.

Sari banaketa ekitaldian Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Nafarroako Gobernuak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harreman Kontseilaria, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Aldundietako ordezkariak eta beste hainbat agintari eta erakunde ordezkari.

## Hernaniko musika bandaren ate irekiera jardunaldia

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Eskualdean musikaren munduan hasiberriak diren edo eta murgiltze prozesuan dabilen musikari zuzenduta dago hitzordua. Urriaren 25ean, ostegunarekin, Hernaniko Milagrosako egoitzan izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

## Bertso saioa Goiburuko San Esteban ermitan

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Haritz Mujika bertsoan arituko dira Unai Ormaetxearen esanetara. Saioa Goiburuko San Esteban ermitan izango da hurrengo urriaren 31n, asteazkenarekin, iluntzeko 19:30ean hasita. Puntuak bertso eskolak antolatuta, Segar eta Andoaingo Udalaren laguntzarekin.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





Salillas kirolaria. PAUSOKA

## 48 orduko kirol erronka asteburu honetan, Pausoka elkartearen alde

### Erredakzioa URNIETA

Behar bereziak dituzten haurren Pausoka elkarteak urriaren 26tik 28ra asteburu osoko ekitaldiak antolatu ditu. Egitarau osotik kirol erronka nabarmendu behar da. Pausokak iragarri duenez, "Xabier Salillas korrikalaria, 48 ordutan zehar, zinta baten gainean oinutsik arituko da martxa egin ez. Esfortzu erraldoiaren inguruan ekintza desberdinak antolatuko ditugu gure elkartearen ezagutarazteko eta laguntzeko". Puzgarriak, tonbola, jokoak, zumba..., Hernaniko Atsegindegi plazan ekitaldirik ez da faltako. Asteburuko hitzorduak ostiralean 18:00tan hasiko dira, probaren hasierarekin batera.

Salillas lehendik ere proba handiak egindakoa da. 2013an Hernani Wukrorekin ONG-GKE-ren alde astebetean 700 kilometro egin zituen, egunez egun 100 kilometroko etapak betez. Orduko hartan hernaniar askoren laguntza izan zuen.

## AZKENA

# Ondarea, emakumea ardatz hartuta

Joan zen igandean jardunaldiak antolatu zituzten Gipuzkoako hainbat txokotan, tartean Andoainen eta Urnietan. Emakumezkoen kale izendegia Andoainen, eta Urnietako elizako organoa izan dira aurtengo bisitaldi gidatuen protagonistak



Andoainen bi talde osatu zituzten. AIURRI

### Xabier Lasa ANDOAIN

"Ondarea, Emakumeen emaria" lelopean Andoainen eta Urnietan ekitaldi bana antolatu zen joan den igandean, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Gipuzkoako udalerrietan ekimena martxan jarri duten hirugarren urtea da.

### Andoainen igande goizez

Andoaingo kale izendegian nabarmentzen diren emakumeen ibilbidea aztertu zen, Larramen-

di Bazkunaren eskutik. Kaletxikin jarritako hitzordura bertaratutako herritarrak hizkuntza-aren arabera bi taldetan banatu ostean, Ama Kandida (Juana Josefa Zipitria) Jesusen Alabak ordenaren sortzailea izan zuten hizpide. Pio Baroja kalera abiatu ziren gero, han Gizarte Zerbizuetako egoitzari izena ematen dion Anbrosia Olabiderekin jarraitzeko; XIX. mendean emakumeentzako aterpeak bultzatu zituen moja izan zen. Goikopla-



Urnietako elizara musikazaleak hurbildu ziren. AIURRI

za utzi, eta Juanita Alkain euskaltzalearen plazara abiatu ziren ondoren.

Carmen Alcacera emagina izeneko zeharkalean azken aurreko azalpenak jaso ostean, Algodonerako Emakumeen plazan amaitu zuten guztiek. Han, hamaiketako gozo batekin eman zitoten amaiera ibilbideari.

### Urnietan igande arratsaldean

San Migel parrokian Ana Belen Garcia organojoleak Cavaillé-

Coll organoari buruzko hitzaldi pedagogikoa eskaini zuen. Ondoren, Haizea Muñoz sopranoak eta biek, euskal konposatzaileen piezekin osatutako kontzertua eskaini zuten. Aita Donostia, Jesus Guridi, Gabriel Olaizola, Tomas Garbizu, Xabier Lete eta Lourdes Iriondoren abestiak interpretatu zituzten; Iriondoren 'Isiltasuna' izenburua daraman abestirako, Koro Berasategi urnietarraren laguntza izan zuten.

## "Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala Liburua

**Salgai: 10€**

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko egoitza  
Aiurriko erredakzio bulegoa

